

**SANTA MARINAKO HERRI-ESKOLIA**

Santa Marinako herri-eskolak 1864-66 birtartian jaso ziran izen bereko ermittia eguen lekuan eta harrezkero makiña bat ume pasau da ikasgela harettatik. Eurak izan ziran ehun bat urtian mutikuentzako eskola publikuak. Azkenengo hamarkada honeitan lehengo eskolairi pisu pare bat gehitu xate eta orain *Milagrosa* ikastetxe moduan dihardue.

Fotografixan agerketan diran umiak eskola horretako bi klasetan ebitzen. Egixa esateko, askoz gehixago ei ziran, baiña egun haretan ikasle-pilla bat Santa Ageda batzera urtenda eguen, eta, fotografua etorri zanian, gelditu ziranak bakarrik atara zittuan erretratuan. Ezkerreko maixua **Felix Vesga** zan eta eskumakua **Manuel Alfaro**, aragoitarra. Beheko illaran, erdixan daguen neskatillatxua maixuren baten alabia-edo izango zan; sasue haretan nesken herri-eskolia beheko plazan eguen, orain *Txantxiku* ikastoliak hartzen dauen aurreko zatixan.

Argazkixa Bigarren Errepublikara garaikua dirudi, 1934-1935 urte ingurukua. Ikaslien jantzixengatik igarten da negu gorrixa dala, eta gainera aurrekaldian edur pittin bat be ikusi leike. Batari eta bestiari preguntauaz, honeik dira fotografixa honetan eza-gutu dittugunak. Goitik behera eta ezkerretik eskumara:

Goiko illaran: **Jexus Guridi**, Urikua; **Jose Luis Plazaola**, gero fotografua izango zana; **Iñaxio Biain**, Kanpantxokua; **Juan Mari Guridi**, Urikua, Jexusen anaia; **Pako Zubiagirre**, Pullangua; eta X. X.

Erdiko illaran: **Elias Plazaola**, Mendiko kalekua eta Jose Luisen anaia; **Antonio Maiz**, agustiñua; **Joxe Anduaga**, San Anton kalekua; **Antolin Aranburu**; **Alfonso Lodoso**, Elgoibarren bizi dana; **Pio Barrena**, Mendiko kalekua; **Migel Iñurritegi**, Olako baserrikua, orain frantziskotarra; **Emilio Gómez**, guardazibillaren semia; **Joxe Mari Mujika**, Kale Zaharrekoa; eta **Jose Mari Iñurritegi**, Olakua, Migelen anaia.

Beheko illaran: **Julian Goñi**; X. X.; Emilio Gómezen anae txikiña; X. X.; **Bixente Aranguren**, Txartesena; X. X.; X. X.; eta X. X.

J. E.

Fotografixia Elias Plazaolak itxittakua da eta argibidiak, barriz, Eliasek berak, Joxe Anduagak eta Pilar Barrenak emun dos-kue. Milla esker danoiri.

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatoz!

**Guztiz Eder**

Arantazu Txintxurreta  
Estetika eta masajea  
GER-nètic  
tratamenduak

Etxaluze Etxea.  
Kale Barria, 54-3. C  
Tfnoa: 78 01 46

**BELLIDO**  
elektrizitatea

**S.A.T.**

Kale Zaharra, 60-3º Tel.: 943 78 23 10

- Mota guztietako elektrogailuen konponketak.
- Erreformak orokorrean.
- Atezain automatikoen instalakuntza eta konponketak.
- Antena kolektiboen instalakuntza eta konponketak.